

## Hiru pertsona epaituko dituzte 2020-ko kale borroka ekintza baten harira

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 26/09/2023

Patxi Ruiz euskal preso politikoarekin elkartasunean izan zuen lekuko ekintza, hau gose eta egarri greba zegoen bitartean.

Auziperatutako bi pertsonak 2021ko ekainaren 23an atxilotu zituzten Ea-ko kutzazain bat erretzea leporatuta 2020an gertatutako kale borroko ekintza bat, Patxi Ruizen gose grebarekin elkartasunean heman zena. Gose greba honek 31 egun iraun zuen, hasierako egunetan egarri greba bilakatu eta preso politikoaren espetxe baldintza kaskarrak hobetzeko balio izan zuen.

Hirugarren auziperatua Gaizka Astorkizaga da eta bere ingurukoek jakitera heman dutenez kasu honen harira fiskalak 18 urteko espetxe zigorra eskatu du. Gainera preso ohia ez da daukan kasu ireki bakarra, izan ere, urte honetako ekainean beraren eta Valentina Morisolen kontrako epaiketa heman zen Espainako Audientzia Nazionalaren aginduz( [Gaur hasten da Valentina Morisolen eta Gaizka Astorkizaga "Fitoren" kontrako epaiketa Madrilen \(lahaine.org\)](#)). Kasu honetan Iñaki Bilbao "Txikito" euskal preso politikoaren gose grebaren aldeko kale borroka ekintza batzuk leporatu zieten eta sententzia ez da atera horaindik.

---

<https://eh.lahaine.org/hiru-pertsona-epaituko-dituzte-2020>